

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Baso pista eta bideen erabilera berezia arautzen duen zerga ordenantza behin betiko onestea**

Udalbatzak, 2020ko azaroaren 4an egindako bilkuran, hasierako onespina eman zion bideen eta baso pisten erabilera berezia arautzen duen zerga ordenantzari. Horren iragarkia ALHAOren 130. zenbakian (2020ko azaroaren 16koan) argitaratuz jendaurrean jarri zen eta, inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsita geratzen da.

Ezagutzera ematen da, haren testua oso-osorik argitaratuz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena) 70.2 artikuluan eta 41/1989 Foru Arauak (Toki Ogasunak arautzen dituena) 16.4 artikuluan ezartzen dutenaren ondorioetarako.

#### **Baso pista eta bideen erabilera berezia arautzeko ordenantza**

##### **1. artikulua. Xedea**

Baso ustiapenetatik zura ateratzen diharduten ibilgailuek bide publikoetan eta baso pistetan egiten dituzten kalteak kontuan izanik, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea) 25.2 artikuluan eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak (Tokiko Udalbatzen Ondasunen Arautegia) 77. artikuluan ezarritakoaren babesean, Legutioko Udalak haien erabilera arautzen du, udalerrriaren eta, oro har, herritarren interesak zaintzeko, bideak eta baso pistak egoera egokian mantenduz.

##### **2. artikulua. Aplikazio eremua**

Lizentzia beharko da udalaren titulartasuneko landa bideak eta baso pistak erabiltzeko. Horrez gainera, tasak aplikatuko zaizkie jurisdikzio honetan dauden mendietatik baso produktuak (industria aprobetxamendurako) ateratzen diharduten ibilgailuei, udal honen titulartasuneko bide guztiak erabiltzeagatik.

##### **3. artikulua. Eskumenak eta jagoletza**

1. Legutioko Udalarri eta udalerriko administrazio batzarrei dagokie haiek titular gisa dituzten bideen eta baso pisten gaineko jagoletza eta zigor funtzioak betetzea.

2. Udalak eta udalerriko batzarrek izendatutako langileek zainduko dituzte pista edo bide horiek, eta haien betebeharrak nagusia izango da bide sarea ikuskatzea eta bide eta pista haiek eta beraien babes azalerak zuzen erabiltzen direla zaintzea, haien erabilera eta kontserbazioa bermatzeko helburuz.

3. Zaintzaren ardura dutenek egingo diren arau haustek salatuta ditzakete, bai eta arau haustek, ezagunak badira, identifikatu eta arau hausteari buruzko datuak hartu ere.

##### **4. artikulua. Baso produktuak ateratzeko baimena**

Garraiatzeko diren produktuen kontratistek, bide publikoak edo baso pistak erabili behar badituzte, beharrezko ateratze baimena eskatu beharko diote udalari, ondoko datu hauek adieraziz:

1. Jabearen identifikazio datuak: NANA, helbidea eta telefonoa.
2. Baso ustiapena egiten den mendiaren identifikazio datuak.

3. Mozketa edo entresaka egiteko baimenaren kopia, Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuak emandakoa, garraiatu beharreko materialen bolumena adieraziz, estereotan.

4. Baso ustiapena egingo duen enpresaren identifikazio datuak, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Kontratistaren identifikazio datuak.

b) Garraiorako erabilitako ibilgailuei buruzko datuak: matrikula, modelo, marka eta karga egin beharreko bidaia bakoitzeko.

c) Garraioa noiz hasi eta noiz bukatuko den.

d) Materialak metatzeko diren lekuaren aipamen espresua, hala badagokio.

e) Erabili nahi diren baso pista eta bideak zehaztea; hala badagokio, ibilbidea kokapen planoan adieraztea.

f) Tasak ordaindu izanaren ziurtagiria.

g) Baso pistak eta bideak erabiltzeko fidantza jarri izanaren froga agiria.

Udalak ateratze baimena emateak ez du kentzen egiteko den jarduerarako behar den beste edozein baimen lortu beharra.

#### **5. artikulua. Debekuak eta mugak**

a) Debekatuta dago honako ibilgailu hauek udalaren titulartasuneko erabilera publikoko lurrezko edo zepazko pista eta bideak erabiltzea:

Beldar-ibilgailuak.

Katedun ibilgailuak.

Arrasterako ibilgailuak (bide zoruan).

Errodatze bandak dituzten ibilgailuak edo ibilgailu autokargatzaileak.

Gehieneko tara eta karga 26 tona metriko baino gehiago duten ibilgailuak eta hiru ardatz baino gehiagoko kamioiak.

Atoiak, ibilgailu astunetan asfaltatu gabeko bideetatik.

Salbuespen gisa, erabilera debekuren bat aldatu ahal izango da, aparteko izaeraz; horretarako alde zuzenetik eskaera egin beharko da, eta ondoren udalak eta udalerriko batzarrek aldeko erabakia hartu beharko dute.

b) Eremu publiko edo bideen ertzetan zura metatzea debekatuta dago.

Salbuespen gisa, areka edota bideko ertzak okupatu ahal dira, metatu beharreko zura lortzeko lurzatira soilik autokargatzaile edo erroadura bandadun ibilgailu bidez sartu ahal bada. Alde zuzenetik, udalari okupazio horretarako eskaera egingo zaio, eta haren ebazpena nahitaez bete beharreko baldintza hauekin emango da:

a) Erabilitako eremua garbi eta egoera onean uztea.

b) Ibilgailuak berehala igarotzea ahalbidetzea, beharrezko segurtasun bermekin.

c) Metatutako zura beti izango da sei bidaiatako gehieneko karga baimenduaren baliokidea.

d) Ezohiko emakida hori beti egongo da "kargatzeko lekuaren erabilera" gatik ordaindu behar diren pean, ordenantza honen 8. artikuluan jasotzen diren tasen arabera.

#### **6. artikulua. Erabileraren murrizketak**

Eurite gogorrek daudenean bideak aldi luzeetan erabiltzea saihestu ahal izateko, eta bolar horretan kalterik sor ez dadin, udalak ezohiko fidantza aurkezteko eskatu ahal izango du, aurreikusitako diren kalteen neurrian kalkulaturakoak; are gehiago, zepazko edo lurrezko bide edo baso pistak erabiltzeko lizentzia ematea ezetsi edo atzeratu ahal izango du, aurreikusitako kalteak konpontzea oso zaila edo garestia baldin bada.

Debekatzen da bide publikoak eta baso pistak erabiltzea abenduaren 1etik martxoaren 31ra bitarteko lau hileko aldian, bi egun horiek barne, salbu eta eguraldia horretarako egokia denean, eta betiere abeltzainek eta egurketariek aldeztatik horren berri eman beharko diote udalari.

#### 7. artikulua. Ebazteko epea

Ateratzeko baimena emateko prozedura ebazteko, gehienez ere 15 eguneko epea egongo da aurreko 4. artikuluan esandakoa betez baimena eskatzen den egunetik aurrera. Denbora hori igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera onetsi dela esan nahiko du.

#### 8. artikulua. Tasak

a) Basoko pista edo bideak erabiltzeko tasak:

LUZERA	TASA
1 kilometrora arte	0,35 euro estereoko
2 kilometrora arte	0,50 euro estereoko
2 kilometro baino gehiago	0,60 euro estereoko

Garraiatzeko den egurra Legutio ez beste jurisdikzio bateko mendietakoa baldin bada, adierazitako tasak ehuneko 15eko igoerarekin ordaindu beharko dira.

Udal honen eta udalerriko administrazio batzarren titulartasuneko pista edo bideak erabiliz gero, Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroan jasota egon zein ez, nahitaez ordaindu beharko dira tasak.

b) Kargatzeko lekua erabiltzeko tasa:

Tasa: 0,30 euro estereoko.

2. Tasa ordaintzen ez duenari, baimena kenduko zaio, automatikoki.

3. Udalaren titulartasunaren edo administrazioaren menpe dauden bideen aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak direla-eta jasotako dirua bide horiek zaintzeko, mantentzeko eta hobetzeko erabiliko da.

#### 9. artikulua. Sortzapena

Tasak aprobetxamendua hasi aurretik sortuko dira, eta baso produktuak ateratzeko baimena eman aurretik ordaintzeko eskatuko da.

#### 10. artikulua. Bideak, baso pistak eta kargatzeko lekua erabiltzeko fidantza

Ondoko hauek dira baso pistak eta bideak erabiltzeko fidantzak:

BIDEAREN LUZERA	FIDANTZAK	
1 kilometrora arte	1,50 euro estereoko	1,90 euro/m <sup>3</sup>
2 kilometrora arte	2,95 euro estereoko	3,80 euro/m <sup>3</sup>
2 kilometro baino gehiago	3,50 euro estereoko	4,50 euro/m <sup>3</sup>

Edozein kasutan jarri beharreko gutxienerako fidantza: 3.000,00 euro.

Legutioko Udalaren izeneko banku kontuan dirua sartuz jarri ahal izango da fidantza, edo litezkeen kalteez erantzuten duen banku abalaren bidez. Halaber, udalak aldeztatik adostasuna adierazita, aseguru poliza bat erabili ahal izango da fidantza gisa.

Mendi batetik zura ateratzeko ordaindutako fidantzak ez du balioko beste mendi batetik zura ateratzeko, aprobetxamenduak aldi berean egin arren.

Fidantza itzultzeko prozedurari buruzko ebazpena emateko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eskaera egiten denetik aurrera. Epea igarota berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera onetsi dela esan nahiko du.

**11. artikulua. Luzapena**

Zura ateratzeko baimenean adierazitako epean aprobetxamendua edo mugimendua bukatu ez bada, dagokion luzapena eskatu beharko da; ordenantza honetako 6. artikulua ezarritakoaren pean, betiere, zeinak "Erabileraren murrizketak" baitu izenburua.

**12. artikulua. Agiriak aurkeztea eta zaintza**

Garraiolariak, garraioak irauten duen aldi osoan, berekin eduki beharko du berekin udalak emandako ateratze baimena, jatorrizkoa edo haren kopia, baita tasak ordaindu eta fidantza jarri izana egiaztatzen duten ordain gutunak ere. Aipatutako dokumentuak udalak izendatutako agente edo arduradunei erakutsi beharko zaizkie, eskatzen dituztenean.

**13. artikulua. Bideak garbitzea**

Aprobetxamenduaren erabiltzaileek bidearen ohiko erabilera publikoa bermatu beharko dute beti, eta, horretarako, aprobetxamenduak dirauen denbora osoan beharrezkoak diren konponketak eta garbiketa lanak egin beharko dituzte. Horrela ez bada, lan horiek udalak egin ahal izango ditu erabiltzaileen kontura.

Edonola ere, erabiltzaileek behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte zirkulazioa ez eragozteko; beraz, ezin izango da bidean enborrik edo abarrik utzi eta ibilgailuek han utzitako produktuak (lurra, harriak eta abar) kendu izango beharko dituzte.

Horrez gain, erabiltzaileek garbi eta bertatik igarotzeko moduan mantendu behar dituzte hormigoiz asfaltatutako zonak eta, behar izanez gero, urez garbitu ahal izango dituzte, beren kontura eta beren bitartekoak erabiliz.

Kargatzeko lekua edo egur parkea erabiliz gero, erabiltzaileak garbi utzi beharko du, zur hondarrak, soberan gelditutako aparrik eta egur mozketaren hondarrak gabe.

**14. artikulua. Txosten teknikoak**

Udalak izendatutako ikuskatzaileek ikuskatze bisitak egingo dituzte, eta txostenak emango dituzte udalaren jabetzako bideak erabili aurretik eta ondoren aurkitzen diren egoerari buruz. Txostenak egiteko mendiko jabea edota eskatzailea gonbidatuko da, baita basozaina ere; hala, beharrezkotzat joz gero, argazkiak, dokumentazio planimetrikoa zein ikus-entzunezkoa erabili ahal izango dituzte oinarri gisa.

**15. artikulua. Konponketa lanak**

Txosten teknikoa ikusita, lizentziaren titularrari, hala badagokio, egin beharreko konponketen berri emango zaio, eta egiteko zein tarte duen adierazi beharko zaio.

Epea igaro bada eta egin beharreko konponketak ez badira egin, udalak berak egingo ditu era subsidiarioan, onuradunaren kontura, kostuen zenbatekoa ordaindutako fidantzatik kenduz.

Fidantzaren dirua nahiko ez bada konponketaren gastuak ordaintzeko, falta dena ordaintzeko eskatuko zaio. Kalteak konponezinak balira, udalak kalte ordaina jasoko du; kalte ordaina apurtutako ondasunen balioaren edo hondatutako kalteen zenbatekoa adinakoa izango da.

Baldin eta, segurtasun arrazoiak edo udalaren ebazpen batean behar bezala egiaztatutako bestelako arrazoiak direla eta, ezin bada geroratu kalteen konponketa, lizentziaren titularrari eta mendiaren jabeari jakinarazi ondoren berehala lehengoratu ahal izango dira, eta dagokien zenbatekoa kalteak egin dituenari eskatuko zaio gero.

Erabiltzaile batek edo gehiagok pista edo bide berberak aldi berean erabiltzen badituzte, eta kalteak gertatuz gero, kalteen erantzukizunak erabiltzaileen artean banatuko dira proportzionalki.

**16. artikulua. Bitartekaritza, kontziliazioa eta arbitrajea**

Kalte edo konponketen balorazioari dagokionez erabiltzailearen eta udalaren artean desadostasunik izanez gero, aldeek, alde aurretik berariazko akordioa lortuz gero, bitartekaritza, kontziliazio eta arbitraje prozedurak bideratu ahal izango dituzte, prozeduraren ondoriozko aldean arteko akordio, itun, hitzarmen edo kontratua lortuz.

**17. artikulua. Baja aitortpena:**

Aprobetxamendua bukatu ondoren, interesdunek dagokien baja aitortpena aurkeztu behar dute, eta aprobetxamendua bukatu izana jaso beharko da; ateratze baimenaren titularrak sinatuta aurkeztu beharko da. Udalari aurkeztu beharko diote, eta baja aitortpenak, hark adostasuna emanaz gero, aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

**18. artikulua. Ingurumen arloko baldintzak**

Udalaren titulartasuneko bideak edo baso pistak erabiltzen dituen orok ingurumen baldintza hauek bete behar ditu:

- a) Ez da inolako hondakinik utziko bide bazterretan; esate baterako, plastikozko poltsak, arrastatze kableak, gasolina latak eta antzekoak.
- b) Bideetan ibiliko diren ibilgailuek ez dute gai kutsatzailerik isuriko, hala nola gasolioa, olioia, lubrifikatzaileak eta abar.
- c) Lurrezko zorua daukaten bideen kasuan, horrelako bideak erabiltzea saihestuko da bideko tarte batzuk urpean badaude eta hondoratzea edo trinkotzean bigunguneak eragiten baditu, lurraren profila alda ez dadin. Ibilgailu astunek lurrezko bideak soilik erabili ahalko dituzte zorua baldintza onak dituenean.
- d) Bidean zehar dauden ur etenak errespetatuko dira, erosiorik gerta ez dadin.
- e) Zorua bidegabeki erabiltzeagatik kaltetu ondoren konpontzeko ez da aldatuko aldameneko zoru zapaldu gabea; zorua berriz jarri beharra badago, material geldoa gehituko da.
- f) Ondoren, lurrezko zorua duten bideak egokitzen direnean, lehenagotik zeuden ur etenak egoera onean utziko dira, eta besteren bat ere egin daiteke baldin eta tarteren batean urak abiadura handia hartzen duela eta tarte handi samarra egiten duela jotzen bada.
- g) Igaro ahal izateko bidearen ondoko lursail publikoetako landaredia ez da inolaz ere moztuko ez hautsiko udalaren baimenik gabe.
- h) Errekaren bat zeharkatu behar bada, erabat debekatuta dago erreken ibilbidea aldatzea eta urertzeko landaretza hondatzea.
- i) Udalak, edo berak eskuordetzen duen pertsonak, artikulua honetan adierazi ez den edozein erabaki hartzeko ahalmena izango du, ingurumena zaintzeko helburuaz.

**19. artikulua. Baimendutako abiadura**

Asfaltatutako bideetan abiadura ezingo da izan 40 kilometro/orduko baino gehiagokoa, ezta 30 kilometro/orduko baino gehiagokoa ere baso pistetan.

**20. artikulua. Motordun ibilgailuen zirkulazioa debekatzea**

Motordun ibilgailuek ezin dute inolaz ere baso pistetan ibili kirol jarduerak egiteko edo motordun ibilgailuekin antolatutako bestelako jarduerak egiteko, honako ibilgailu hauek ez badira:

Suhiltzaileen eta poliziaren ibilgailuak eta bestelako ibilgailu ofizialak.

Administrazio batzarraren edo udalaren berariazko baimena duten ehiza aprobetxamenduetako adjudikaziodunak, bakar-bakarrik berariaz baimendutako ibilgailuetarako. Aparkatzeari dagokionez, hirigunean eta Arabako Foru Aldundiaren bideen erregistroan erroldaturik ez dauden landa bideen ondoko guneetan aparkatu beharko da; erabat debekaturik dago baimenik ez duten ibilgailuak baso pistetan, lur pistetan eta herri mendietan aparkatzea edo haiekin ibiltzea.

Egurra atera, larreak erabili eta luberritzeetarako aprobetxamenduak zuzenean erabiltzen dituztenen ibilgailuak, aprobetxamendu bakoitzerako aplikagarri diren baldintza fakultatiboetan ezarritakoa betez.

Administrazio batzarrak edo udalak berariaz emandako salbuespenezko baimena duten ibilgailuak.

Arabako mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa honako hauetan arautu da: Mendien Foru Arauan eta Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako toki erakundeen onura publikoko eta jabari publikoko mendietan motordun ibilgailuen zirkulazioa arautzen duen Foru Dekretuan.

### **21. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak**

Araudi honetan aurreikusitakoaren kontra doazen ekintza edo ez-egiteek administrazioaren erantzukizuna sortuko dute, bide penalean, zibilean edo bestelakoetan eska litekeenari kalterik eragin gabe.

### **22. artikulua. Arau hauste motak**

Artikulu honetako hurrengo ataletan adierazitako arau hausteen artean edozein eragiten duenak administrazio arloko erantzukizuna eragingo du.

1. Ibilgailu motordun astunak udalaren eta udalerriko administrazio batzarren jabetzeko bide eta baso pistetatik ibiltzeari dagokionez:

A. Arau hauste arinak dira:

a) Motordun ibilgailu astunak baso pista eta bideetatik baimenik gabe igarotzea edo emandako baimenetan ezarritako arauetakoren bat urratzea, gerora legezatzeko modukoa bada.

b) Bidea edo pista bertatik igarotzea ezinezko bihurtzen duten egoeretan izatea.

c) Ingurumen arloko edozein baldintza urratzea, ekosistema, flora, fauna edo paisaian inolako eraginik ez badu.

d) Baimendutako abiadura baino azkarrago zirkulatzea.

e) Kamioiak kargatzeko lanak egitea pista edo bideetan, ibilgailuen zirkulazioa oztopatuz.

f) Hiru falta arin eginez gero, falta larri gisa hartuko da.

B. Arau hauste larriak dira:

a) Motordun ibilgailu astunak landa eta baso pista eta bideetatik baimenik gabe igarotzea edo emandako baimenetan ezarritako arauetakoren bat urratzea, gerora legezatzeko modukoa ez bada.

b) Bidea edo pista pertsona edo ibilgailuak ibiltzeko arriskutsua izango den baldintzetan uztea.

c) Ingurumen arloko edozein baldintza urratzea, ekosistema, flora, fauna edo paisaian eragin arina sorraziz.

d) Baimendutakoa baino pisu handiagoa garraiatzea.

C. Arau hauste oso larriak dira:

c) Ingurumen arloko edozein baldintza urratzea, ekosistema, flora, fauna edo paisaian eragin larria sorraziz.

b) Ausartegi gidatzea.

2. Udalaren jabetzako bideen eta baso pisten jabetza eta oro har erabileraren mugei dagokienez:

A Arau hauste arinak dira:

a) Jabari publikoko eremuan baimenik gabeko obra, instalazio edo itxiturak egitea, eskutako lizentzia edo baimenik gabe eginez, edo emandako baimenetan jasotako baldintzen bat urratzea, baldin eta gerora legezatzeko modukoak badira.

b) Jabari publikoko eremuan zuhaitzak landatzea, materialak edo zura metatzea edo baimendu gabeko erabilera aldatzea, edo dagokion baimenik gabe, eta emandako baimeneko baldintzei erreparatu gabe.

B. Arau hauste larriak dira:

a) Zirkulazioaren antolakuntza, orientazio edo segurtasunari zuzenean lotutako bideko edozein elementu funtzional hondatzea, edo horren ezaugarri edo egoera nahita aldatzea.

b) Bideko edozein instalazio edo obra edo horien edozein egitura elementu hondatzea, kaltetzea, aldatzea edo moldatzea.

c) Bidea partzialki kaltetu edo hondatzea, baimendutako mugak gainditzen dituzten pisu, karga edo abiaduran zirkulatzearen ondorioz.

C. Arau hauste oso larriak dira:

a) Zirkulazioaren antolakuntza, orientazio edo segurtasunari zuzenean lotutako bideko edozein elementu funtzional lapurtzea, kaltetzea edo hondatzea, edo horren ezaugarri edo egoera nahita aldatzea, kasuan kasuko elementuak dagokion funtzioa betetzen jarraitzea eragotziz.

b) Bideko edozein instalazio edo obra edo horien edozein egitura elementu hondatzea, kaltetzea, aldatzea edo moldatzea, horrek zoruan edo arekan eragina duenean.

c) Bidearen zati handiak kaltetu edo hondatzea, baimendutako mugak gainditzen dituzten pisu, karga edo abiaduran zirkulatzearen ondorioz.

### **23. artikulua. Zigor prozedura**

a) Udalari dagokio zigor prozedurak hastea, izapidetzea eta ebatzea.

b) Udal aginteak edo helburu honekin izendatutako bide zaintzaileek egiaztatu eta salaketako agirietan nahiz bestelako agiri publikoetan legezko baldintzak betez formalizatzen diren gertaerak froga gisa erabili ahal izango dira. Administrazioek ere frogak erakutsi edo aurkeztu ahal izango dituzte beren eskubideak eta interesak defendatzeko.

c) Arau hausteak delitu edo falta gisa har badaitezke, Administrazioak organo jurisdikzional eskudunera bideratuko du erruduntasun testigantza, eta ez dio zehapen prozedurari jarraituko aginte judizialak adierazpenik egiten ez duen artean.

Aginte judizialaren zehapena egonez gero, ez da administrazio isunik jarriko.

d) Delitu edo faltarik ez bada egin, administrazioak zehapen espedientearekin aurrera jarraitu ahalko du, kasu honetan, jurisdikzio eskudunak frogatutzat jotako gertaeretan oinarrituz.

### **24. artikulua. Zigorren taula**

Aurreko artikuluek adierazitako arau hausteak zehatzeko aintzat hartuko dira eragindako kalteak, eta hala badagokio, sortutako arriskua eta eragilearen asmoa; honako isun hauek aplikatuko dira:

Arinak: 150 eta 500 euro arteko isunak.

Larriak: 500 eta 1.500 euro arteko isunak.

Oso larriak: 1.500 eta 3.000 euro arteko isunak.

### **25. artikulua. Arau hausteak iraungitzea**

Aurreko artikuluetan aipatutako arau hausteak 3 urteko epean iraungiko dira oso arau hauste larriak direnean, 2 urteko epean arau hauste larriak direnean, eta urtebeteko epean arau hauste arinak direnean.

**26. artikulua. Kalte eta galeren ordainak**

Legutioko Udalaren edo udalerriko administrazio batzarren bideetan eta landa eta baso pistetan nahiz haietako edozein instalazio edo elementu funtzionaletan kalteak egiten dituen orok kalte ordaina eman beharko du; horrek ez du ezertan eragozten bidezkoak diren isunak ere jartzea.

Udalari dagokio aipatutako bideetan egindako kalteen zenbatekoa zehaztea.

Balorazioa edo balorazioak salatutakoari helaraziko zaizkio, dagokiona edo egokitzat jotako alegazioak aurkez ditzan.

Kalte ordainen erabakiak, berriz, eragindako kalteak adieraziko ditu zehapen espedientea bukaraziko duen ebazpenean, baina hori gorabehera, nolana ere egin egin beharko da, nahiz eta ebazpena absolutiozkoa izan, betiere administrazio erantzukizunaren salbuespenak erantzukizun zibila ez badakar.

Arau hausteen ondoriozko kalte eta galerak ordaintzeko agintzen duten erabakiak lege ezarritako epeetan betearaziko dira. Errekurtsoa jartzen denean, ez da etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena, salbu eta, antolamendu juridikoarekin bat, organo eskudunak hala agintzen duenean.

Ezarritako epean kalte-ordaina ordaindu ezik, Udalak premiamendu bidetik ordainaraziko du.

**27. artikulua. Tasak eta fidantzak eguneratzea**

Ordenantza hauetan tasa eta fidantza gisa ezarritako zenbatekoei Euskal Autonomia Erki-degoko urteko KPI aplikatuko zaie.

**Azken xedapena**

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatu edo indargabetu arte.

Erabaki horrek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere jarri ahal izango da.

Guztiek jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Legutio, 2020ko abenduaren 31

*Alkatea*

*JON ZUAZO ZUBERO*